

NOR DA DILAINE ?

Auritz da nire izena, hamabost urte ditut eta egia esanda, nazkaturik nago urtero udako oporretan egoera berbera gertatzeaz. Beti geratzen naiz nire herrian eta honek, munduan galduriko txoko bat dirudi, inor bizi eta inork ezagutzen ez duena.

Hala ere, aurten, hamabost urtetan lehen aldiz, nire amari lagunduko diodala hitz eman dut. Nire amak, uste dut, serioegi hartu duela hau guztia zeren gaur nire gelan musika entzuten ari nintzen bitartean atea jo eta ganbara txukundu behar dudala esan dit, segituan, oihal bat eta garbikaria atearen parean utziaz.

Gogorik gabe baina, igo naiz azkenean. Ate txikia ireki orduko, hauts mordoa ikusi dut “lan asko izango dut” pentsatu dut nire baitan. Kaxa asko mugitu ditut leku batetik bestera eta bat-batean lurrean zegoen egunkari zaharkitu batek, arreta jarrarazi dit. Emakume baten argazkia zetorren bertan, ez dakit nondik, baina emakume haren aurpegia oso ezaguna egin zait. Ganbara osoa txukundu ostean amarengana joan naiz, egunkaria besapean neramala. Argazkia bere bi begien erdian ipini diot eta nor zen galdetzean erantzun gabe geratu da. Aho zabalik eta argazki hura nondik atera dudana galdegin dit. Nik uste dut emakume hura niri baino ezagunagoa gertatu zaiola.

Bestela zergatik egongo ote zen egunkari hura ganbaran gorderik?

Eta ama ere zergatik geratuko ote zen aho zabalik argazki harengatik galdetzean?

Burua nahaspilatuta nuen, bira gehiegi ari ote nintzen ematen emakumearen argazkiari?

Ez nekien, agian bai, nork jakin, nork esan ezinezkoa dela emakumea ezagutzea.

Gau osoa igaro nuen galdera berberari birak emanaz.

Hurrengo goizean, argazkia hartu eta nire amonaren etxera joan nintzen.

Erakustean, ea nor zen galdetu nion eta segituan erantzun zidan Dilaine Azkunegi zela, baina ez zidan beste ezer kontatu.

Etxera itzuli nintzen ziztu bizian, interneten sartu eta Dilaine Azkunegi izeneko emakumeari buruzko informazioa bilatzen hasi nintzen, hilik zegoela esaten zuten datuek baina ez zegoen inolako informaziorik nola hil zen adierazten zutenik.

Orduan ganbarara igo eta pista baten bila hasi nintzen eta paper zati bat aurkitu nuen, bertan, hau idatzia agertzen zen:

1989/11/27a

"Kaixo Ariane:

Zer moduz? Zure aholkua behar dut, leku bat behar dut mundu honetatik alde egiteko, beldur naiz. Mesedez lagun iezadazu.

Zure betiko laguna:

Dilaine Azkunegi"

Orain hari nintzen apur bat gehiago ulertzen, Dilaine eta nire ama lagun minak ziren eta horregatik aurreko egunean ez zidan beste ezer komentatu.

Hala ere nire amari ezer ez esatea zela onena pentsatu nuen.

Goizean aurkitutako hainbat dokumentuetan begiratu nuen eta denetan berbera jartzen zuen:

“Dilaine Azkunegi izeneko emakumea desagertu zen, Donapalekuko 22. etxera gutun banatzailea iritsi zenean, ez zegoela ohartzean bere bizilagunarengana jo eta etxean egon behar zuela kontatu zion honek. Hiru hilabete eman zuen poliziak emakume hau aurkitzen baina, ez zen bere arrastorik aurkitu.”

Lotara joan nintzen berehala, hurrengo goizean egin behar asko baintuen.

Gauean ez nuen ia lorik egin eta goizeko zortzietarako altxatu nintzen.

Praka urdin batzuk, kamiseta txuri bat eta nire betiko oinetakoak jantzi eta gosaria poltsikoan neramala, kalera irten nintzen. Kaleak hutsik zeuden,

bidean aurkitu nituen bakarrak, katu batzuk izan ziren. Nire kalean aurrera jarraitu eta ezkerrerantz jo nuen, ondoren aurrerantz jarraitu eta sasi batzuez estalirik zegoen ate bat ireki nuen. Heze usainak bete zuen bat-batean nire sudurra eta bertako iluntasunak beldurra sentiarazi zidan. Dena zuhaitz luze batzuez estalirik zegoen, baziren hala ere zuhaitzen artean gune huts batzuk eta gune hauetatik argitasun apur bat bakarrik sartzen zen. Aurrera jo nuen eta bat-batean nire begien aurrean Donapaleku kale dotore izana zena agertu zen, baina jada zaharkitua zegoen. Etxeetako paretek irekidura latzak zituzten eta zenbakiak ozta-ozta ikusten ziren. Bila ibili ostean, 22. zenbakiarekin jo nuen. Oso arraroa egiten zitzaidan horrelako etxe batzuk herritik hain urruti egotea eta inor bertan ez aurkitzeak, nahiz eta jakin, izpiritu txar batzuk bertan omen zeudeneko sinesmen baten ondorioz bertan bizi zen jende ugarik aldegin zuela. Lorategiko atea ireki nuen eta belarren kontra borroka eginez etxeko ateraino heldu nintzen. Hau ireki eta iluntasun batek bete zuen nire barne osoa. Hala ere etxeko izkina batetik kandela batek ematen zuen argi bat zetorren. Izaturik baina, argirantz poliki-poliki hurbiltzen joan nintzen. Argia zegoen gelaren parean nengoenean emakume baten ahotsa entzun nuen, abesten hari zen eta egia esanik ahots zoragarria zuen. Abestia ere oso polita zen, lehen aldia zen entzuten nuela baina bihotzeraino sartu zitzaidan.

***“Urrutitik heldu naiz,
baina ez dakit nola,
mundu batean, galdurik nago
hain arrotza da hau dena niretzat
lagundu, arren , lagundu...”***

Ez dakit zergatik, baina negarrez hasi nintzen, emakume haren antzera. Emakumea ohartu egin zen ni han nengoela eta izutu beharrean, betiko lagunak izango bagina bezala bere albora pasatzeko eskatu zidan. Etxean bezala aurkitzen nintzen emakume haren besoetan, ez dakit zergatik baina, hala zen. Hitz egiten hasi nintzen berarekin, baina bere izenari buruz galdetzen nionean gaiz aldatzen zuen baina ez zitzaidan batere axola. Etxera joan nintzen nahiko azkar eta hainbat galdera buruan ibili nituen gau osoan zehar:

Zein izango ote zen bere izena?

Abestiaz galdegin nionean bere biziari buruzko abesti bat zela esan zidan. Baina zergatik esango ote zuen hori?

Hurrengo arratsaldeak ere emakume harekin igaro nituen, ederki pasatzen nuen. Nire amaren adina zuen, ile hori eta begi urdinak, baina begi hauek ez zuten bere ahoak bezala alaitasuna islatzen.

Egunak honela igaro genituen, baina azkenean bere izena azaldu zidan eta bere istorioa. Dilaine Azkunegi zen, nire amaren lagun mina. Berak bazekien ni bere lagun minaren semea nintzela, baina nik ordea ez nuen honen berririk. Hamahiru urte zeramatzan etxe hartan bakarrik bizitzen, nire amak laguntzen zion, berak egiten zizkion erosketak eta hilabetean behin bisitatzen zuen, herriari buruz informazio apur bat emateko. Etxe horretan bakarrik bizitzearen arrazoia zen tamalgarriena, hilko zutela esaten zioten deiak jasotzen hasi zen eta izuturik abandonaturiko etxe horretara joateko asmoa izan zuen. Lehenago ere han bizi izana zen eta izpiritu txarren bat zegoela bertan esaten zuten garaian nire etxean bizi izan zen. Ondoren hilik zegoela esaten zuten berriak agertzen hasi ziren berak nahi zuen bezala. Ordutik aurrera ez zuen mehatxu gehiago jaso baina beldur zenez bere etxera joan zen, jada kale horretan jende gehiago ez zelako bizi eta ez zen kalera ateratzen jendeak jada hilda zegoela uste baitzuten. Oso istorio tristea zen eta amaitu ondoren negar batean hasi ginen biak. Inori ez kontatzeko promesa egin nion eta hala izan zen. Hoberena hau zen, lagun berri bat nuela, niretzat bakarrik eta beragan fidatu ahal nintzela nekien edo beno hori uste nuen. Etxera pozik joan nintzen, handik aurrerako udak hobeak izango zirela nekien, nirekin egongo zen laguna bainuen.